



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI OROKORRAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA SOZIETATEAREN SEGURTASUN ANALISTAREN LANPOSTU BAT (PROFIL TEKNIKO) ETA SEGURTASUN ANALISTAREN LANPOSTU BAT (ARAUDI AHOLKULARITZAKO PROFILA) BETETZEKO HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

LEHEN OINARRIA.- ARAU OROKORRAK:

1.1. Oinarri hauen xedea da honako hau betetzeko hautaketa prozesuaren oinarritzko arauak ezartzea:

- Segurtasun analistaren lanpostu bat (profil tekniko) (2023001).
- Segurtasun analistaren lanpostu bat (arau aholkularitzako profila) (2023002).

2023001 hautaketa prozesua hutsik geratzen bada, plaza hori 2023002 prozesuan iragarritako lanpostuetara gehituko da, eta alderantziz.

1.2. Aplikagarria izango da deialdi honetarako xedatutakoa, oro har. Oinarri hauek arautuko dituzte hautaketa sistema eta puntuazioak.

1.3. Deialdiaren xede diren plazek enpresaren hitzarmenaren arabera ordainsaria izango dute (5. maila: 43.965,90 euro gordin urtean). Hitzarmen horrek arautuko ditu gainerako lan baldintzak ere.

1.4. Lanpostuen zereginak AKSaren bulegoetan bete beharko dira, Gasteizen (Araba).

1.5. Lanpostuak betetzeko berriazko araudia haien oinarri espezifikoetan jasoko da.

1.6. Kontratazioak kontratu mugagabearen modalitatean egingo dira, eta dagokion probaldia izango dute.

1.7. Kasuan kasuko lan poltsak osatu eta lehenengo bi urteetan, deialdi honen xede den lanpostuaren berdinak diren beste batzuk behin betiko betetzeko premia gehiago sortuko balira, AKSAk kontratazio mugagabeetarako deitu ahal izango ditu hautaketa prozesu osoa amaitu duten pertsonak, hau da, hautaketa prozesuaren 4. fasea egin duten eta azken horretan GAI izan diren pertsonak, betiere puntuazio hurrenkeraren arabera.

Lanpostuak era mugagabean betetzeko premia berri horien artean, honako arrazoi hauek daude: erretiroa, egiturazko plantilla areagotzea, behin betiko borondatezko baja, borondatezko eszedentziagatik lanpostua gehiago ez gordetzea.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

1.8. Deialdi hau enplegu webguneetan argitaratuko da, eta oinarriak (orokorrak eta espezifikokoak) eskuragarri daude AKGSaren webgunean www.ccasa.eus eta enpresa laguntzailearen webgunean www.qualisconsultores.es.

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (baldintzak baztertzailerak dira):

- A) Eskaera: Eskatera, I. **eranskina** eta II. **eranskina** betetzea (eremu guztiak).
- B) Nazionalitatea: Besteren konturako lanpostuetan langile lan kontratudun aritzeko indarrean den legediak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea. Atzerritarrei dagokienez, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak eskatzen dituen baimenak eduki behar dituzte. Lege horrek atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du.
- C) Adina: Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- D) Titulazioa: Oinarri espezifikoen hirugarren oinarrian adierazitako titulazioetako bat izatea edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta izatea.
- E) Gaitasun funtzionala: Ez izatea dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen osasun arazorik, hargatik eragotzi gabe Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarritakoa bete dadila.
- F) Gaikuntza: Ez egotea epai bidez edo zerbitzuaren diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetako edo sektore publikoko enpresetako edozeinetatik bereizita edo aldi batez lanpostutik kendua, eta ez egotea ezgaiturik funtzio publikoak betetzeko.

Aurretik adierazi diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira betetik, eta lan kontratua egiten den unera arte betetzen jarraitu, salbu eta E apartatuan aipatzen dena, zeina AKSAk erabakitako mediku zerbitzuak ziurtatu beharko baitu kontratazio proposamena egin aurre-aurretik.

Pertsona desgaituak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira hautaketa probetan, baldin eta haien mugak iragarritako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo zereginak normaltasunez betetzearekin bateraezinak ez badira. Hautaprobetan, denbora



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

eta baliabideak ahal bezainbeste egokituko dira, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute eskaeran.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiak honako agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdi bakoitzean zehazten den helbidera:

- **I. eranskina**
- **II. eranskina**
- **NANaren** edo identifikazio dokumentu baliokide baten **irudi eskaneatua**.
- **Curriculum vitae**.
- Gizarte Segurantzak emandako **lan bizitzaren txosten eguneratua**.
- **Ezagutzen zinpeko adierazpena**.
- **Curriculum memoria**.
- Oinarri espezifikoetan **eskatutako titulazioaren kopia**.
- Eskatutako ezagutzak edo baloratzekoak direnak egiaztatzeko **ziurtagirien edo diplomen kopiak**.
- Hizkuntza **titulazioen kopiak**.
- **Izangaiak baldintzak betetzen dituela eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla frogatzen duten agiri guztiak**.

Arabako Kalkuluguneak eskubidea du egiaztatzeko emandako dokumentazioa/informazioa egiazkoa dela, eta hautaketa prozesutik kanpo utzi ditzake automatikoki egiazkoa ez den informazioa eman dutenak.

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 19an amaituko da.

Qualis Consultores de Talento SL enpresa laguntzaileak erantzuna bidaliko du hartu izanaren agiri gisa, posta elektronikoz, eskaera bidali ondoko 48 ordu balioduneko epean, eta izangai bakoitzari eskaera kode desberdin bat helaraziko dio.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Izangaien nortasuna isilpean edukitzeko erabiliko da kode hori hautaketa prozesuan egiten diren argitalpenetan.

- Mezu elektronikoko bat bidaliko da, informazio gisa, izangaiak emandako helbide elektronikora, jakinarazteko prozesuan onartu egin dituztela edo, hala badagokio, zergatik baztertu dituzten. Halaber, izena eman duten hautagaietako bakoitzari identifikazio kode bakar bat emango zaio, faseetako bakoitzeko emaitzetara sarbidea izan dezan.

POSTA ELEKTRONIKORA EGINDAKO JAKINARAZPENI BURUZKO OHARRA:

Hautaketa prozesuaren edozein fasean posta elektronikoko bidez bidaltzen diren jakinarazpenen xedea informazioa ematea da eta ez dira, inolaz ere, lotesleak izango.

LAUGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA:

Oro har, bitarteko hauen bidez jakinaraziko dira deialdiaren eta hautaketa prozesuaren inguruko iragarriak, probetarako deialdiak, emaitzen argitalpenak eta abar:

- www.ccasa.eus webgunean.
- www.qualisconsultores.es webgunean.

- Interesdun guztien eskura jartzen da honako helbide elektronikoko hau, argitaratutako oinarriak direla eta kontsultak edo argibide eskaerak bidaltzeko eta hautaketa prozesu osoan zehar alegazioak egiteko:

2023001@qualisconsultores.es
2023002@qualisconsultores.es

- Fase bakoitza amaitzean, Qualis Consultores de Talento SL enpresa laguntzaileak lortutako balorazioen zerrenda egingo du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta alegazioak aurkezteko hiru egun balioduneko epea ezarriko du. Era berean, ariketa bakoitzean lortutako behin betiko emaitzak argitaratuko ditu, eta ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten izangaiak baztertu egingo dira. Behin betiko emaitzen argitalpena izango da epaimahaiak behin-behinekoei egin zaizkien alegazioei emandako erantzuna.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN HAUTAKETA:

• Hautaketa probak amaitutakoan, hautaketa epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handiena lortu duten izangaien alde.

Berdinketarik badago, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak % 40 baino gutxiago diren profil profesionaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuagatiko bazterkeriakoak ez diren arrazoiak badituzte neurri hori ez aplikatzeko; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.

• Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, berdinketa hausteko ezarritako lehentasun hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

1. 2. fasean lortutako puntuazioa
2. 4. fasean lortutako puntuazioa
3. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean egon behar da), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan iragarri daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

• Hautaketa prozesuaren emaitza interesdunei jakinaraziko zaie, eta hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeko oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko egiaztagiriak:

• Eskatzen diren eta curriculumean adierazi diren ikasketak egin izana egiaztatzen duten tituluen eta ziurtagirien kopia konpultsatua.

Proposatutako hautagaiak ez badute aurkezten galdegiten zaien dokumentazioa, AKSAk gaitzat jotako hurrengo hautagaiak (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerei jarraituz) kontratatu ahal izango ditu.

Lanpostu honen probaldia sei hilabetekoa izango da, eta epaimahaiak probaldi horretarako balioespen batzordea izendatu beharko du; hark egin beharko du laneratze prozesuaren jarraipena, eta itxi egin beharko du egokia izan bada; bestela, dagokion justifikazio txostena idatzi beharko du.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Proposatutako hautagaiak ez badute gainditzen aipatutako sei hilabeteko probaldia, AKSAk gaitzat jotako hurrengo hautagaiak (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango ditu.

AKSAk bi lan poltsa bat sortuko ditu (prozesu bakoitzeko bana) behin-behineko kontratazioak egiteko. Lan poltsa horietan, 2. FASEA gainditu duten pertsona guztiak sartuko dira, puntuazio hurrenkeran, 4. faseko elkarrizketa pertsonalaren balorazioa kontuan hartu gabe, eta betiere bi baldintza hauek betetzen badituzte:

- 3. FASEAN GAITZAT jo badira.
- 4. FASEKO zati teknikoan eskatutako gutxieneko atalasea gainditu badute.

Hala osatutako lan poltsa nola hura kudeatzeko oinarriak AKGSaren web orrian emango dira argitara, behin hautaketa prozesua amaitutakoan.

Lan poltsetan berdinketa hurrenkera ezartzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Lehenetsuna emango zaie emakumeei, emakumeak % 40 baino gutxiago diren profil profesionaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuagatiko bazterkeriakoak ez diren arrazoiak badituzte neurri hori ez aplikatzeko; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.
2. 2. fasean lortutako puntuazioa
3. 4. fasean lortutako puntuazioa
4. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean egon behar da), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan iragarri daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA EPAIMAHIA:

6.1. Helburu horrekin, hautaketa epaimahai bat eratuko da, eta epaimahai horren izendapenean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten **emakumeen eta**



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

gizonen ordezkariak orekatua izatea bermatuko da, eta inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak errespetatuko dira. ¹

6.2. Ordenamendu juridikoaren arabera, hautaketa epaimahaiak ebatziko dituzten oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko dituzten oinarrietan jasotzen ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarri. Horrez gain, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotzeko dituzten, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

Aipatutako epaimahaiko kideren batek ezin badu azaldu, sozietatearen zuzendaritzak izendatuko du haren ordezkaria (beharrezkotzat jotzen badu). Epaimahaia gutxienez hiru kidek osatuko dute beti.

6.3. Hautaketa epaimahaiak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuek parte hartzea, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

6.4. Epaimahaiko kideek ezin dute hautaketa prozesuan parte hartu (eta hala jakinarazi behar diote deialdia iragarri duen agintaritzari). Izangaiek errekusatzeko eskubidea baliatu ahal dute, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23 eta 24. artikuluetan arautzen dituen inguruabarrak gertatzen badira.

6.5. Hautaketa epaimahaiko kide guztiak izango dute ahotsa eta botoa. Aipatutako epaimahaiaren erabaki guztiak bertaratutako kide guztien botoaren gehiengoarekin onetsiko dira, eta, boto kopuruan berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du bozketak.

6.6. Hautaketa epaimahaiko kideen izen zerrenda behin betiko onartu eta baztertu diren izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:

Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, langileak hautatzeko prozesu honetan parte

Artikulu honen ondorioetarako, ordezkariak orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuak gutxienez % 40ko ordezkariak badute. Gainerakoetan, bi sexuak ordezkariak badaude.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

hartzen dutenei jakinarazten diegu prozesuan parte hartzearen ondorioz edozein xedetarako ematen dituzten datu pertsonalak Arabako Kalkulugunea SAK (AKGSA) eta Qualis Consultores de Talento SLk horrela erabiliko dituztela:

ONARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKSA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	AKSAko Administrazio eta Giza Baliabide Saileko arduraduna
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AKSAk: <ul style="list-style-type: none">• Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AKSAren arteko lan harremana kudeatzeko.• AKSAk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Ez dira lagako
Eskubideak	Datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzea, eta informazio gehigarriaren dokumentuan jasotzen diren gainerakoak.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu honako webgune honetan: www.ccasa.eus , Lege informazioa - > Datu pertsonalak atalean.

ONARRIZKO LEGE INFORMAZIOA QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	QUALIS CONSULTORES SL
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu Qualis Consultores de Talento SLk: <ul style="list-style-type: none">• Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun profilak eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzeko.
Legitimazioa	Hautagaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean.
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Gordetzea	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilera zehatza eta baliatu nahi





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazio aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean (www.aepd.es).

